



# Mañana 'Perla'



por solo

**4,95**  
euros



**EL DIARIO VASCO**

promociones.diariovasco.com



Ximun Fuchs zuzendaria eta Ander Lipus eta Zoila Berastegi aktoreak. :: usoz

## Frankismoaren herentzia salatzen duen antzezlan

'Francoren bilobari gutuna' da Ximun Fuchs eta Ander Lipusen erronka berria. Donostian eskainiko dute bost egunez

:: FELIX IBARGUTXI

**DONOSTIA.** 2010ean, 'Errautsak' antzezlan mugari nabarmena izan zen euskal antzerkigintzan. Proposamen oso berritzailea zen, ez bakarrik gaiaren aldetik, baita lan egiteko moduan ere. Hiru antzerki-talde elkartu ziren orduan -Artedrama (Bizkaia), Le Petit Théâtre de Pain (Lapurdi) eta Dejabu Panpin Laborategia (Gipuzkoa)- eta hainbat emanaldi egin zituzten Euskal Herri osoan zehar. Gero, 2013an, 'Hamlet' gauzatu zuten hiru taldeok. Eta orain hirugarren elkarlariari ekin diote: 'Francoren bilobari gutuna'. Urriaren 31n izan zen estreinaldia, ohi bezala Lapurdiko Luhuson, eta hilaren 9tik 13ra bitartean Donostiako Gazteszenan

ikusi ahal izango da.

Ospitale batean garatzen da antzezlan. Taldeok sinopsi hau zabaldu dute: «Inakik hamar urte eta leuzemia ditu. Joxanek berrogeita sei urte eta gerra zibileko bus baten txatala buruan. Etorkizun bideragaririk ez duen ospitalean iragana eta oraina kateatzen dira Migel eta Kristina medikuen ametsetan. Itxarongeletan sekula agertzen ez diren pazienteen izen zerrendak entzuten dira ordena alfabetikoan eta Carmen Martinez-Bordiuk betetzen du bihotzeko aldizkari maiztuaren azala».

Zuzendari lanean, aurrekoetan

### FITXA TEKNIKOA

**Emanaldiak:** Donostiako Gazteszenan, azaroak 9-13. 10 euro.  
**Taldeak:** Artedrama (Bizkaia), Le Petit Théâtre de Pain (Lapurdi) eta Dejabu Panpin Laborategia (Gipuzkoa).  
**Zuzendaria:** Ximun Fuchs.

bezala, Ximun Fuchs jardun da. Idazleak, berriz, Unai Iturriaga eta Igor Elortza izan dira. Eta aktore lanean hauek dihardute: Ander Lipus, Patricia Urrutia, Pako Revueltas, Erika Olaizola, Manex Fuchs, Zoila Berastegi eta Urko Redondo. Josep Duhau arduratu da argiztapen diseinuaz eta Philippe Ducou koreografiaz. Eta Asier Ituarte egin du musika.

Esan daiteke bi gai nagusi ukitzen dituela obra honek: ospitaleen osasuna eta frankismoaren herentzia. «Nazismoa epaitua izan zen. Lehenengo Nurembergen, eta gero Jerusalemen Adolf Eichmann-en kontrako epaiketa egin zen. Hemen, frankismoa dela eta, ez da auzirik egin», dio Ximun Fuchs zuzendaria. Berak ondo daki kontzentrazio esparruen berri. «Aitaren aldetik, aitorenaren senide guztiak Auschwitzeko kontzentrazio esparruan bukatu zuten, juduak baitziren. Amaren aitona, Miranda Ebroko esparrutik pasa zen, gosea eta tortura jasan zituen».

Obraen izenburuan Francoren izena ageri da, «baina Franco ez zaitu interesatzen. Erakusten dugu frankismoaren herentzia, nolabait esateko». Eta hori dena, «erritmo goxo batekin, nahiz ukitzen diren gaiak bortitzak diren».

Aurreko lanetan bezala, 'kanpoko' aktore batzuei lan egiteko aukera eman diete hiru antzerki-taldeok, besteak beste Zoila Berastegi arbizuarrari.

### EN BREVE

#### Ciclo sobre escritores en el Ernest Lluch

##### LITERATURA

El Centro Ernest Lluch de Donostia organiza un ciclo dedicado a cinco escritores. De Txirrita hablará Bernardo Atxaga (día 8); de Baroja J.C. Mainer (día 15); de Blas de Otero, J. Fez. de la Sota y Amaia Iglesias (día 22); de Lorca, García Montero (día 29) y de Unamuno, P. Bastarrika e I. Sarasola (1 de diciembre). DV

#### Descubren dos dólmenes en Leintz Gatzaga

##### ARQUEOLOGÍA

Dos nuevos dólmenes se han descubierto en el paraje de Artabilla, en el término municipal de Leintz Gatzaga. Se trata de una estructura funeraria dolménica con un túmulo de 14 m. de diámetro y una altura de 2 m. con una zanja central. A su lado ha aparecido otra estructura con un túmulo de 7 m. de diámetro, una altura de 0,8 m. y una cámara central. DV.

#### Sting reabrirá la sala parisina Bataclan

##### PARÍS

La sala de conciertos parisina Bataclan, en la que el pasado 13 de noviembre (13-N) murieron 90 personas durante la oleada de ataques yihadistas contra la capital francesa, reabrirá el próximo día 12 con un concierto de Sting, anunció ayer el propio cantante. La venta de las entradas comenzará el martes y los beneficios irán dirigidos a las ONG de ayuda a las víctimas. EFE